

**EUSKADIKO DEMOKRAZIARI
ETA HERRITARREN
PARTE-HARTZEARI BURUZKO
LIBURU ZURIA**

- Laburpena -

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS**

LIBURU ZURIA: Zergatik Liburu Zuria?

Liburu Zuri bat gizartearentzat oro har interesa duen **dokumentu ofizial bat da**, gai jakin bati buruzko zalantzak edo zehaztugabetasunak argitu nahi dituen. Arazo bat ulertzen, konpontzen eta/edo erabaki bat hartzen laguntzen duten **ekintzak biltzen dituen gida** bat da.

Aldez aurreko dokumentu bat da, **Gobernu baten lehentasun politikoak aurkezteko bitarteko gisa erabiltzen dena dagokion legeria txertatu baino lehen**. Ez da konpromiso politiko aldaezina, baina normalki inplikaturako agenteen artean kontsultaldi bat igaro ondoren argitaratu ohi da.

Gai politiko eztabaidagarri bati buruzko iritzi publikoaren giroa neurtzeko baliagarria da, eta Gobernuentzat lagungarria da izan dezakeen inpaktua neurtzeko.

PROZESUA: Nola egin nahi izan dugu?

Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri honek **Euskadin balio publiko arduratsua sortzeko** proposamen partekatu bat izan nahi du.

Helburu horrekiko koherentziari eutsiz, ekimen hori hainbaten **parte-hartzearekin eta laguntzarekin eraiki dugu**, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udaletako ordezkari politikoek eta teknikariek gai horretan adituak diren pertsonekin, gizarte zibil antolatuarekin eta beren esperientzia eta jakintza eskaini nahi izan duten euskal herritarrekin batera parte hartu duten prozesu baten bitartez. Horregatik hain zuzen ere, Liburu Zuri honek jardunaldiz jardunaldi prozesu honetan parte hartu duten euskal herritar eta erakundeek egindako ekarpenak jasotzen ditu.

Folio zuri batetik abiatu gara, eta 2013ko abenduan hasi zen ia urtebeteko prozesu aberasgarri baten ondoren, Liburu Zuri honi itxura eman zaio, ordezkagarritasunaz haraindi parte-hartzeari buruzko **hainbat ikuspegi** barnean hartzen ahaleginduz.

Prozesuan zehar, eduki ezberdinak landu ditugu agente askorekin, hainbat metodologia erabiliz, eta elkarrekin eraikitzeko eta ikasteko konpromisoa hartu duten 400 lagunek baino gehiagok hartu dute parte.

Gardentasun-berme eta diseinu-gida gisa, parte-hartzearen eremuan hainbat ikuspegi ordezkatzen dituen komitea eratu da, Liburuaren diseinu eta egikaritzapenean orientabideak eta gomendioak eman dituena. Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren aholkularitza eta laguntza metodologikoa izan dugu ere, eta era berean bideratzaile-lana egin du administrazioaren eta gizarte zibilaren eta herritar antolatuen arteko lotura natural gisa.

Eta honekin guztiarekin, lankidetzaren oinarri izanik, dituen bertuteek eta akatsek are baliotsuagoa egiten duten Liburu bat elkarrekin eraiki dugu. Teorikoa eta kontzeptuala izateaz gain, bertan biltzen diren ekimenetako bakoitzarentzat neurri eta ekintza zehatzak dituenak; ekintzara bideratutako balio, printzipio eta kontzeptu partekatuak biltzen dituena. **Kaleratzen denetik aurrera aberasten eta zabaltzen joango den abiapuntua izango da.**

Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria **oraindik ere eraikitzen ari den prozesu baten barruan dagoen dokumentu bizi gisa jaio da.** Ez da, beraz, helmuga bat, abiapuntu bat baizik, emaitza gisa **denboran zehar iraunkorra izango den eta erakundeen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren oinarritutako den Euskadiraiko balio publikoaren sorkuntza partekatu bat** izango duten erreforma garrantzitsuetan aurrera egiteko.

ZIOEN AZALPENA: Zergatik egiten dugu?

Demokraziarekiko desfektazio-garaiak bizi ditugu, **herritarrek politikarekiko**, beren ordezkariekiko eta, azken batean, esparru publikoari eta bere erakundeei lotutako guztiarekiko **mesfidantza handia baitute.** Era berean, administrazioetik eta politikatik ere **errezeloa eta baita nolabaiteko beldurra ere azaltzen** dira kudeaketako eta erabaki publikoko prozesuak herritarrei irekitzeari dagokionez.

Gobernantza-eredu berriak erreklamatzeko dituzten ahotsak gero eta ugariagoak dira. Gure administrazioen eta kudeaketa publikoko prozesuen funtzionamendu demokratikoa hobetuko duten **aldaketak behar ditugu, herritarrekin batera** sarea sortzeko, entzuteko,

arreta eskaintzeko eta partekatzeko, gure eginkizuna modu **eraginkor, garden eta erantzunkideagoan** egin ahal izateko.

Herritarrak, era berean, erabaki publikoak hartzeko unean komunikazio gehiago, parte-hartze handiagoa eta gardentasun handiagoa izatea eskatzen ari dira. Dagoeneko ez dira konformatzen zerbitzu eta prestazio publikoen hartzaile izatearekin, eta beren komunitatearen noranzkoa markatu behar duten eta haren aurrerapenaren oinarri izango diren **etorkizuneko jokalekuen eraikuntzan parte hartzea** eskatzen dute.

Hala eta guztiz ere eredu berri hori ez da soilik herritarren eskaera bat edo administrazioaren betebeharrak, **beharrizan bat ere bada, gobernuek dagoeneko beren kabuz ezin dietelako aurre egin gizarte-eraldakuntzei**. Gero eta beharrezkoagoa da **gobernuaren eta herritarren arteko inplikazioa eta lan koordinatua**. Horrek zera dakar, burokrazian oinarritutako kudeaketa-ereduak gainditzea eta **herritarrekin konektatzeko** ahalmenean oinarritzen diren eredu biziagoekin ordeztzea.

Herritarrek beren lurraldeko bizitza publikoan eta politikoan parte hartzeak sistema demokratikoa indartzen du, eta gainera **konpromiso kolektiboaren** eragile eta adimen kolektiboa onura komunaren mesedetan bideratzeko modurik onena da. **Esparru publikoa erantzukizun partekatu bihurtzea da auzia**.

Gure herritarren parte-hartze benetako eta eraginkor baten eta parte-hartze hori errazten duen kudeaketa politiko baten bitartez bakarrik **lortuko dugu lurralde kohesionatu, bateratzaile eta berritzaile bat, eraldatzeko, aniztasunetik aberastasuna sortzeko eta aurrerapen-eragile iraunkor izateko gai izango dena**.

KONPROMISO POLITIKOA: gure konpromisoa

Gobernantza eraginkor batek zera dakar: kudeaketa-prozesu horizontalagoak ezartzea, beste erakunde batzuekin taldean lan egitea, eta herritarrak (eta gizarte-eragile garrantzitsuak) erabaki publikoen prozesuan txertatu eta inplikatzeko. Herritarrekin zuzenean eraginpean hartzen dituzten erabakirik garrantzitsuenen inguruan hitz egiteko, negoziatzeko eta adosteko mekanismoak ezarri behar ditugu.

Herritarren parte-hartzea osagai nagusietako bat da gobernantza berri horretarako, zeren eta:

- Legitimitatea ematen die gobernuei eta erakundeei
- Politika publikoen legitimitate handiagoa ahalbidetzen du
- Gizarte-aniztasuna ordezkatuta egotea dakar
- Gizarte-interesak agenda publikoan sartzea ahalbidetzen du
- Herritarrak erabaki-prozesuetan inplikatzeko dituzte
- Gizarte zibila indartzen laguntzen du
- Eta azken batean, emaitzak eta inpaktuak hobetzen dira, balio publikoa, komunitatea, herritartasuna eta demokrazia gehiago sortuz

Eusko Jaurlaritzaren ustez, herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren muinean bertan dago. Aspaldidanik gizartearen parte-hartzean errotuta dagoen herria gara, horregatik jakin badakigu balio demokratikoei lotuta eta bizitza publikoan konprometita dagoen biztanleria sistema demokratiko osoaren indar bizia dela. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzan demokrazia **parte-hartzailean sakontzeko eta birsorkuntza politikoko prozesu bat sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarrizketa-printzipioa eta gardentasuna biziberrituz.**

Premia kolektiboak eta konpondu beharreko arazoak gero eta konplexuagoak dira. **Gobernu eraginkorra garatu nahi dugu, gauzak ondo egin nahi ditugu.** Jakin badakigu hobetu egin behar dugula, eta **gauzak hobeto egin** daitezkeela eta ditzakegula, eta era berean **gauza hobek egin** daitezkeela. Herritarrekin elkarrizketa areagotzea beharrezkoa da, arazoei aurre egiteko, entzuteko eta konponbideak konpartitzeko. Eta gardentasuna ere behar da, herritarrek une oro politika publikoen eta beren prozesu eta zerbitzuen kudeaketaren berri izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak bere 2012-2016 Gobernu Programan **herritarrengandik hurbilago dagoen** eta efikazia, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioetan oinarrituz jardungo duen **administrazio baterantz** aurrera egiteko apustua egiten du. Eta printzipio horiek gauzatzeko ezinbestekoa da **parte-hartze handiagoa duen administrazio baterantz** aurrera egitea.

Liburu Zuri hau, 2014 - 2016ko Gobernu Programan bildutako ekimena, Euskadiko administrazio, agente sozial eta herritarrentzat ekintza-esparru bateratu bat garatzea du helburu. Eusko Jaurlaritzak sustatutakoa bada ere, baina Euskadirako Liburu Zuria izatea nahi dugu.

Bertan, lehenik eta behin, gobernantza-eredu berri honen euskarri izango diren printzipioak biltzen dira. Ondoren, eredu horretara heltzeko aldaketak eta ekintzak xehatzen dira, eta Liburuan bildutakoaren hedapen- eta jarraipen-konpromisoekin amaitzen da.



GOBERNANTZA EREDUA: Zein da gure proposamena?

Liburu Zuri honetan bildutako gobernantza-ereduak euskal gizartearen gaitasun publikoak eta pribatuak atzeman nahi ditu eta horiengana jardun nahi du, **balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboa bultzatzeko helburuarekin.**

Ikaskuntza eta hazkunde partekatuko eredu hori **gobernu onaren printzipioetan oinarritzen da: osotasuna, efikazia eta efizientzia, gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzak**. Printzipio horiek, kudeaketa publiko on bat bilatzeaz gain, **gure gizartearen arazo garrantzitsuenei erantzun hobea eskaini nahi diete**, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat aukerak sortuz eta deliberazio demokratikoa sustatuz. Hau da, **komunitatea, herritartasuna eta demokrazia sortuz.**

Abiapuntu horretatik, **hainbat gune sortu ahal izango ditugu pertsonak eta haien gaitasunak garatzeko eta lankidetzak-mekanismoak sortzeko**, adimen kolektiboak gero eta konplexuagoa den jokaleku baten aurrean irtenbide berriak sor ditzan.

Liburu Zuri honek, balio publikoaren sorkuntza optimizatuko duten **parte-hartzearen hiru dimentsio** elkartzearen emaitza izango den gobernantza-eredu bat sustatzen du:

- **Parte-hartze politikoa**, administrazioaren eta herritarren artean politika publikoak diseinatu, planifikatu, monitorizatu eta ebaluatzeko dagoen elkarreraginetik sortzen den parte-hartze gisa ulertua. Efikazia politikoa oinarritzen den eta izaera estrategikoa duen administrazioen eta gizarte zibilaren arteko parte-hartzearen / lankidetzaren dimentsio bat da: zer egin eta zertarako.
- **Zerbitzuak diseinatzeko parte-hartzea**. Prestazio horren diseinu, birdefinizio eta/edo hobekuntzan herritarren ikuspegia eta esperientzia (zerbitzu publikoen erabiltzaile-ikuspuntutik) txertatu nahi duen parte-hartze gisa ulertua. Efizientzian gehiago oinarritzen den eta izaera operatiboa duen parte-hartzearen dimentsioa da: zerbitzu publikoen prestazioa nola operatibizatu, doitu eta, azken batean, hobetu.
- **Lankidetzan oinarritutako parte-hartzea**, gizarte zibiletik balio publikoa sortzeko sortzen diren ekimenak eta lankidetzak bezala ulertua. Erantzunkidetasun-

inguruneen garapena ere sustatzen dute, non esparru publikoa elkarrekin kudeatzen den: nola jardun lankidetzan, batzeko.

Hiru dimentsio horiek proposatzen duten erreferentzia-esparruak, **politikak modu efikaz eta efektiboagoan kudeatzea bilatzeaz gain, esparru publikoa kudeatzeko modu berri bat ere bilatzen du.**


EREDUAREN PRINTZPIOAK: Zer da parte-hartzea?

Herritarren parte-hartzea ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboko **prozesu bat** da. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abar eraldatu nahi ditu, pertsona guztiei espazioa eta hitza emanez balio publikoaren sorkuntzan beren erantzukizuna eta eragiteko ahalmena balia ditzaten.

Gizakiak berezkoa du parte-hartzea. Bizitzako eremu guztietan gauzatzen da. Gure auzo-elkartearen bilera batera joaten garenean, gure adiskideekin geure kabuz kudeatzen dugun lokal batean denbora pasatzen dugunean, edo beste pertsona bati kalea gurutzatzen laguntzen diogunean edo joan nahi duen lekua non dagoen adierazten diogunean parte-hartzen ari gara.

Parte-hartzea, era berean, **eskubide bat** da. Pertsona guztiek, salbuespenik gabe, eragiten dieten jarduera eta erabaki publikoetan parte hartzeko aukera izan behar dute eta alderdi aktibo izan behar dute, eta herritarren presentzia garrantzitsua bermatu beharra dago jarduera eta erabaki horietan. Arautu egin behar da, baliatu ahal izateko mekanismoak sortuz. Nolanahi ere, nolabaiteko klientelismoa dago esparru publikoaren aurrean, eta horrek parte hartzea une honetan inoiz baino beharrezkoagoa izatea dakar, eta borondatezkoa eta desiratua izan behar badu ere, parte hartzea herritarren **betebehar bat** ere bada guztion ongia bermatzeko.

Horregatik, **jarrerari** oso lotuta dauden elementuak ditu. Parte hartzeak autonomia, askatasuna, erantzukizuna dakar. Konponbidearen parte izateko interesa azaldu behar da, eta beraz, halakorik ez dagoenean, norbaitek parte hartu nahi ez izatea onartu egin beharko litzateke. Eta muturrera eramanda, parte ez hartzea parte hartzeko modu bat izan daiteke ere.



Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren Jardunaldiaren ondorioen txostena \(Innobasque, 2013\)](#)

EREDUAREN PRINZIPIOAK: Zer ez da parte-hartzea?

EZ DU NORANZKO BAKARREKOA 17AN RFHAR

- Ez da nik nahi dudana galdetzea
- Ez da erantzun zuzena izatea
- Ez da hondatutakoa konpontzea
- Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ezta iritzia ematea ere
- Ez da soilik galderei erantzutea
- Ez da beldur izatea / babestea
- Ez da gauzak gerta daitezen espero izatea
- Ez da "zertan da nire gaia?"
- Ez da arrazoia ematea

EZ DU MAKILLAJE EGINTZA BAT 17AN RFHAR

- Ez da maniobra politiko bat
- Ez da manipulazioa
- Ez da motibazio partidistekin egindako herritarren instrumentalizazioa
- Ez da kosmetika-lan bat, erakusleiho bat...
- Ez da propaganda
- Ez da klientelismoa
- Ez da populismoa

EZ DA DESOREKAK SORTZEA

- Ez da emakida bat
- Ez da inposizio bat
- Ez da botere-erlazioa
- Ez da eskuordetzea
- Ez da lehendik hartutako erabakiak justifikatzea
- Ez da inposatzea
- Ez da adostasunaren bilaketa

EZ DA BAT-BATEKO ZERBAIT

- Ez da araurik gabeko prozesu bat
- Ez da egintza jakin eta puntual bat
- Ez da zentzua eta ezta mugak ere argi ez dauden prozesu batean inplikatzeko
- Ez da itxaropen faltsuak sortzea

EZ DA MODA BAT


- Ez da moda bat
- Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- Ez da iritzi-kultura
- Ez da prozesu elitista bat
- Ez da administrazioak sortutako zerbaitek
- Ez da (soilik) zuzeneko demokrazia, ezta biltzar bat ere
- Ez da inoren jabetzakoa, ezta ezein alderdi politikorena
- Ez da ez burukrazia ez izanideak

EZ DA GAUZA SINPLEA

- Ez da sinplea, konplexua da
- Ez dira monosilaboak, elkarrizketa, iritzia eta kontrasteak behar ditu
- Ez da helburu bat, bitarteko bat da. Baina ez da soilik bitarteko bat: filosofia bat da
- Ez da gonbidapen abstraktu bat
- Ez da azken emaitza, prozesua da
- Ez da helburu bat, helburu horretara iristen garen modua da

Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren Jardunaldiaren ondorioen txostena \(Innobasque, 2013\)](#)

EREDUAREN-PRINTZIPIOAK:-Gainditu-beharreko-oztopo-eta-aurreiritziak





EREDUAREN PRINTZPIOAK: Ezaugarriak

Zeintzuk izan behar dute parte-hartze prozesu baten ezaugarriek?

- **Bi ardatzetan lan egitea, enpatiaz entzutea eta ekarpena egitea**
 - Dimentsio hirukoitzean eraldatzeko: pertsona, erakundea eta lurraldea.
 - Herritarrengan eta administrazioetan pentsamolde-aldaketa bat sustatzeko.
 - Azpian dauden botere-erlazioak modu desberdinean artikulatzeko eta zereginak argitzeko.

- **Gardenak, inklusiboak eta irekiak izatea**
 - Administrazioa irekitzeko, barnealdera nahiz kanpoaldera.
 - Politikaren eta kudeaketa publikoaren konplexutasunak eta mugak hobeto ezagutzeko.
 - Aldaketarekiko erresistentziak gainditzeko, hala erakundean bertan nola herritarrengan.
 - Administrazioa herritarrengana hurbiltzeko eta alderantziz, kexaz haraindi joango diren laguntze-prozesuak sortuz.
 - Guztion ekarpenak ahalbidetzeko eta onartzeko, inor kanpoan utzi gabe eta aurreiritzirik gabe, hizkuntza ulergarriak eta mekanismo inklusiboak erabiliz (talde gutxiengodunentzat irigarriak diren kanalak, elkartzeko gune eta ordutegi malguak, testu irakurterrazak, informazio esanguratsu eta antolatua, eta abar).

- **Aniztasuna sustatzea “nola” egiteko moduetan**
 - Parte-hartzea eskuragarria, erabilgarria, graduagarria eta ezaguna izateko.
 - Mekanika arazoa/konponbidea moduan bakarrik ez izateko, baizik eta baliagarria izan dadin planifikatzeko, monitortzeko, ebaluatzeko eta abar.

- **Herritarren eskura jarritako euskarri eta mekanismo guztiak** modu integralean eta koordinatuan kudeatzeko, hala prozesuaren hasieran nola itxieran (zer izan den kontuan, nola eta zergatik).

- **Parte-hartzea norantza bikoitzean eman daitekela onartu:** “behetik gorakoa” eta “goitik beherakoa”.
- **Bere autokritika-maila altua eta bere ebaluazio-ahalmena.** Prozesu orok jardunbide egokiak eta gainditu beharreko gabeziak adieraziko dituen lan pedagogiko bat eduki behar du (adibidean dago indarra).
- **Sare sozialen ahalmenaren erabilera eraginkorra,** online eta offline parte-hartzea eta presentziak lerrotatuz eta segurtasuna eta barne-hartzea bermatuz.

Parte-hartzeak loteslea izan behar al du?

Herritarren parte-hartzeak **ez du nahitaez loteslea izan behar. Baina irtenbide partekatuen bilaketan benetako eragina izan behar du, eta erabaki-hartzearen prozesuan kontuan izan behar da,** prozesuan parte hartzen duten pertsonekin gutxienez ere hartu beharreko konpromiso hauetan zehaztuz: **informatzea, parte-hartzearen balioa aintzat hartzea, enpatiaz entzutea eta ondorioak itzultzea.**

PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

Arlo publikoa arlo kolektibotik eraikitzea

Administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako parte-hartzearen kultura bat sustatzeko **jarrera eta printzipioetan aldaketari** ekitea ezinbestekoa da.

1. Administrazio hurbila eta iragazkorra, herritarrekiko etengabeko elkarrikeria eta lankidetzaren sustatzea

Parte-hartzea barnean hartzeak, gardentasuna abiapuntu duen balio-aldaketa bat dakar administrazioarentzat. Era berean bere beldurrak, kezka eta arriskua hobeto kudeatzera behartzen du administrazioa. Egiteko moduak aldatzera, lan-eskemak berriro planteatzera eta autokritika-gaitasuna garatzera behartzen du, proiektu bakoitzaren berezko nondik norakoa eta diferentzia onartuz. Parte-hartzea, beraz, **administrazioak erabaki hobeak hartzeko, bere politika eta zerbitzuetarako eragin hobeak lortzeko aukera bat da.**

Proposatutako zenbait ekintza:

- Informazio publikoa herritarren eskura jartzea
- Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzea
- Prozeduretan eta barne-kudeaketako jarraibideetan aldaketak sustatzea

2. Herritar konprometituak, balio publikoaren sorkuntzan zeregin aktiboagoa beren gain hartuko dutenak

Herritarren parte-hartzeak **herritarrak subjektu aktibo** bihurtzen ditu eta **jarrera-aldaketa** bat ahalbidetzen du: entzuna izate hutsak, herritarren ahotsa eta arazoen konponketan betetzen duen zeregina onartzeak, herritarrak eraikuntza kolektiboko proiektuetan gehiago inplikatzeko eta politikarekiko eta politikan diharduten pertsonenganako konfiantza berreskuratzea dakar.

Parte hartzeko motibazioak eta interesak “hau ez da nire kontua” ideia aldatzea eta “parte hartu nahi ez izate” hori nondik datorren ulertzea ere badakarte. Beraz, harresiak eraisteko aukera bat da, baina era berean egungo lokartze-egoera horretatik ateratzeko aukera bat da: **ardura eta konpromisoa dakartza**.

Proposatutako zenbait ekintza:

- Itzulera kolektiboa duten ekimenetan parte hartzeko konpromiso pertsonala bere gain hartzea
- Espazio publikoaren berreskuratzean agente aktibo izatea

PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

“Zehatza” denetik hastea

Bigarren atal honetan Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoko 5 eremutan garatu beharreko konpromisoak eta ekintzak planteatzen dira, eremu horietan herritarren ikuspegiak eta parte-hartzeak horien garapenean balio handiagoa eman dezaketelarik:

- Osasuna
- Ingurumena
- Ekonomia-garapena
- Ikaskuntza
- Gizarte-kohesioa

Eremu horietako bakoitzarentzat, era berean, hainbat ekintza planteatzen dira 2 mailatan:

- **Ekintzak Administrazioaren aldetik:** lehentasuneko ardatzak eta ekintza zehatzak.
- **Ekintzak herritarren aldetik.**

Hala ere, hurrengo fasean, komenigarria litzateke Liburu Zurian adostutako printzipioetan oinarrituz, Foru eta Udal Administrazioen eskumen diren arloetan herritarren parte-hartzea txertatzeko bideetan sakontzea.

Osasuna

Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren (sektore guztien eta herritarren) arteko lankidetzak eta parte-hartzeak, **osun indibidualaren nahiz osun kolektiboaren prebentzioaren eta sustapenaren berreskuratzean** kontuan izan beharreko elementuak izan behar dute. **Prebentzioaren aldeko** apustua egiten duen eta **osun-kultura sustatzen duen kalitatezko sistema** sanitarioa sendotzeko ere baliogarria izan daitezke.

Parte-hartzea txertatzeko lehentasuneko ardatzak

- Osasun-sistamarako ekitatezko sarrera.
- Sistema sanitarioaren iraunkortasuna
- Gune sozio-sanitarioa.
- Farmazia-gastua.
- Autonomiaren sustapena – mendetasuna.

Proposatutako zenbait ekintza

- **Administrazioaren aldetik:** Aurrekontu-gardentasuna (gastuak, kostuak eta inbertsioak) erraza eta herritarrentzat ulergarria den hizkuntzan.
- **Herritarren aldetik:** Proiektu berriak proposatu ahal izateko kanalak erabili eta exijitzea, pertsonal sanitarioaren, herritarren eta interes-taldearen arteko topaguneak (espazio fisikoak) nahiz aplikazioak (espazio birtualak) direla ere.

Ikaskuntza

Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira **pertsonen garapen integrala lortzera eta erantzunkidetasuna bezalako balioen sustapenera bideratutako ikaskuntza-inguruneak garatzeko eta finkatzeko.**

Eremu komunitarioa pertsonen eta kolektiboen hazkunde inklusibo eta autonomiaduneko ingurune izatea lortu behar dugu. Espazio horien sendotzea, bere

hezkuntza- eta prestakuntza-educietan **gizarteak eta lan-merkatuak eskatzen dituzten gaitasunetara bizitza osoan zehar egokituta egongo den eta kalitatezkoa eta malgua izango den hezkuntza-sistema batekin osatu beharko da.**

Parte-hartzea txertatzeko
lehentasunezko ardatzak

- Ikasleak hezkuntza-sistemaren erdian.
- Etengabeko ikaskuntza.
- Hezkuntza-berrikuntza.
- Hizkuntza-politika.

Proposatutako zenbait
ekintza

- **Administrazioaren aldetik:** Oinarrian komunitatea ikaskuntza-ingurune gisa duten proiektuen garapenean laguntzea finantzaketa-ildoan bitartez.
- **Herritarren aldetik:** Hainbat inguruetan jardutea (erakundea / lana, familia, ohiko ingurunea, eta abar) “buru-ereduak” aldatzeko, aukeren bideratzaile izanik, ezagutza eta jakintzak partekatuz, gure inguruko pertsonengan jakin-mina piztuz, komunitatean eraiki eta bizitzeko gure gaitasun kritikoa eta autonomia baliatuz.

Ingurumena eta ingurunea

Herritarren parte-hartzea beharrezkoa da **lurraldearen, azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzaren antolamendu errespetuzkoa eta orekatua egiteko**; eta era berean gure mendetasun energetikoa minimizatzeko duen eta berotegi-efektuko gasen emisioak eta aldaketa klimatikoaren eraginak arinduko dituen mugikortasun integratuko eredu iraunkorrago bat garatzeko.

Ingurumenaren eremuan gobernu-ekintzako ildoetan herritarren parte-hartzea txertatzeko xedez, bi ardatz handi izan behar dira kontuan: **antolamendua – plangintza eta sentsibilizazioa**, ingurumenaren erronka ez delako erakundeen arazo eksklusiboa, baizik eta pertsona guztiena.

Parte-hartzea
txertatzeko
lehentasunezko ardatzak

- Lurraldearen antolamendua.
- Hirigintza-plangintza eta -antolamendua.
- Berotegi-efektuko gasen emisioa.
- Aldaketa klimatikora egokitzea eta horren aurka borrokatzea.
- Ingurumen-prebentzioa, -babesa eta -leheneratzea.
- Balio natural handiko guneak eta naturagune babestuak.
- Hondakinak: babestea eta kudeatzea.
- Ingurumen-heziketa, -prestakuntza eta -sentsibilizazioa.

Proposatutako zenbait
ekintza

- **Administrazioaren aldetik:** Balio natural handiko guneak eta naturagune babestuak aipatzen dituzten informazio- eta eztabaida-prozesuak: tokiko parte-hartzerako dinamikak sustatzeko eta konpentsazio-sistema on bat garatzeko.
- **Herritarren aldetik:** Kontsumo indibidualak kolektiboan, ingurunean eta produkzioan duen eraginaz jabetzea: Tokiko merkataritzaren, hurbileko produktuen edo zero aztarna ekologikoaren aldeko apustua egitea, enbalajerik gabeko produktuak ...

Gizarte Kohesioa

Herritarren parte-hartzea eta administrazioen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak funtsezko ardatzak dira **herri erabat integratzailea eta kohesionatua sendotzeko, enplegua, hezkuntza, prebentzioa eta elkartasuna oinarritzat hartuz, eta gizarte-babeserako sistemak indartzeko, garapen harmoniatsua, osasungarria eta ekitatezkoa bermatzen jarrai dezaten.**

Enpleguak beste gizarte-arazo batzuk konpontzeko motor eta konpontzaile gisa duen zeregina ahaztu gabe, **zerbitzu-prestazioko eredu inklusibo baten aldeko apustua egin behar da**, eta horretarako beharrezkoa da **baliabideak bideratzea eta hiri-dinamikak eta -ekimenak aktibatzea, autonomia pertsonalaren garapena eta erabateko herritartasunerako eskubidea bermatuko dutenak.**

Parte-hartzea
txertatzeko
lehentasunezko ardatzak

- Elkarbizitza eta aniztasunaren kudeaketa.
- Gizarte-laguntza bermatzea behartsuenei.
- Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea.
- Gazteen enplegua sustatzea.
- Haurren eskubideak.
- Hirugarren sektorea sustatzea.

Proposatutako zenbait
ekintza

- **Administrazioaren aldetik:** Hirugarren Sektoreko lankidetzasareak (eta bitartekaritzakoak) sortzea eta/edo garatzea, eta eremu horretako erakundeetan barneko parte-hartzerako prozesuak bultzatzea.
- **Herritarren aldetik:** Boluntarioritza egitea, pertsona bakoitzak bere nahietatik edo errebeldietatik.

Garapen Ekonomikoa

Euskadi **ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki gisa posizionatzeko**, egungo premiak etorkizuneko belaunaldien baliabideak eta aukerak arriskuan jarri gabe asetzeko gai izateko, beharrezkoa da **euskal sare sozial eta ekonomikoa osatzen duten pertsona eta erakunde guztien gaitasunak eta ekarpenak kontuan izatea**. Horregatik, politika ekonomikoari eta lehiakortasun-politikari zuzenean edo zeharka lotutako parte-hartze prozesuak garatzea ezinbestekoa da.

Parte-hartzea
txertatzeko
lehentasunezko ardatzak

- Industria-politika
- Ekonomia soziala bultzatzea
- ETEei laguntzea
- Ekintzailletza
- Talentua bultzatzea
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema eta I+G+b

Proposatutako zenbait
ekintza

- **Administrazioaren aldetik:** ETEei laguntza emateko mekanismo berriak garatzea, batez ere 3 arlo handiren inguruan: Zerga-politikak, prestakuntza-politikak eta nazioartekotzea.
- **Herritarren aldetik:** Pertsonak oinarri dituen eta ingurunearekin konprometituta dagoen ekonomia-garapena sustatzen duten gizarte-mugimenduetan aktiboki parte hartzea.

JARRAIPENA – ZABALKUNDE KONPROMISOAK

Liburu Zuriaren eraikuntza-prozesua baliagarria izan da argi uzteko Administrazioak sustatzen dituen parte-hartze prozesuak **lantze partekaturako oinarrizko balio batzuetan oinarritu behar direla, hala formari nola edukiari dagokienez**.

Logikoa eta koherentea da **balio horiek era berean erreferentzia izatea zabalkunde- eta jarraipen-fasean:**

- **Inklusibitatea**, gure gizartea osatzen duten pertsona guztien gaitasun askotariko eta aberasgarrien balioa aintzat hartzeko eta horiek kontuan izateko adibidetzat hartuz. Pertsona guztien ekitatezko parte-hartzea bermatzea eskatzen du, eta diferentziaren balioa errespetatzea eta onartzea dakar, pertsona guztien duintasuna eta herritartasun aktiboa sustatuz.

- **Gardentasuna**, informazio publikoa eta erabaki politikoak hartzeko motibazioak eta prozedurak eskuratzeko eskubidean oinarritzen dena. Informazio horrek egiazkoa, kalitatezkoa, eskuragarria eta herritarrentzat ulergarria izan behar du, horrela bakarrik sortzen baita ekintza politikoarekiko konfiantza eta segurtasuna. Era berean, herritartasun erantzunkidea eta parte-hartzailea garatzeko ezinbestekoa da bere eskubideak eta betebeharrak ezagutzea eta baliatzea eta bere erakundeekin aktiboki lankidetzan jardutea.
- **Lankidetz**a, konfiantzatik abiatuta, ideia berri, balio berri eta proiektu berri partekatuen eraikuntzan oinarritzen dena, lankidetz-lotura egonkor eta eraginkor baten bilaketan hainbat ikuspegi barnean hartuz. Beharrezkoa da gogoeta-estrategia bat eta borondatea ekintzarekiko motibazioak arrakasta izan dezan, eta aldatzeko jarrera batean eta "desberdinarekin" lankidetzan jarduteko nahian gauzatzen da: norberaren jakintza abiapuntutzat hartuz, jakintza hori partekatu egiten da prozesuan balio-erlaketak sortzeko.
- **Berrikuntza**, pertsonak, erakundeak eta gizarteak nahi duten etorkizunik onena (hobea, zuzenagoa, solidarioagoa, gaituagoa eta abar), etengabe eta modu irekian, sortzeko duten trebetasun gisa ulertua, hori guztia balio indibiduala eta kolektiboa sortzen duten eta eragina duten ideia berriei balioa emanez gauzatu. Lehiakortasuna eta jakintza-transmisioa sortzen du, eta gizakien garapen iraunkorraren oinarrietako bat da.

Euskal herritarren eta administrazioen artean elkarriketa- eta interakzio-mekanismoak eraldatzeko, **ez da eraginkorra ezta bidezkoa ere hainbat politika garatzen jarraitzea euskal herritarren, agente ekonomiko eta sozialen eta administrazioen arteko komunikaziorako, lanerako eta lankidetzarako sareak sortu gabe.**

Herritarrekiko zerbitzuan oinarrituta dagoen eta irekia, gardena eta erantzunkidea izango den gobernantza-eredu berri bat eratzeak, beraz, orain arte egindako lanaren **zabalkunderako konpromisoak eta jarraipen-mekanismoak eskatzen ditu**. Liburu Zuri honen eraikuntza-prozesuan bildutako eskaera eta kezketan oinarrituta, **Eusko Jaurlaritzak honako hau egiteko konpromisoa hartzen du:**

- **Adostasun zabala lortzen duten eta bermatu ahal izateko arauzko tresnak behar dituzten gaiak arau-proposamen gisa jasotzea.**
 - Herritarren parte-hartzerako gune egonkorak eta askotarikoak garatzea, politika edo zerbitzu publikoei buruzko eztabaida edo proposamena egitera bideratuko direnak.

- Norabide anitzeko elkarrizketa bultzatzea, herritarren parte-hartzea eta konpromiso publikoa sustatuz kontuan hartzerakoan.
- Interes publikoko proiektuetan agente publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak sustatzea, eta guztion mesederako diren herritarren ekimenak ere sustatzea.

Konpromiso horren edukia 2014/9/16an onartu zen Euskal Administrazio Publikoaren Legearen bitartez garatu da, eta lege horren oinarritzko edukia I. Eranskinean bildu dugu.

- **Gizartearen aurrean egiten den Liburu Zuriaren aurkezpena** herritarrekin dagoen konpromisoaren adierazgarri gisa eta erakunde guztiek eztabaidatzeko eta kontuan izateko akuilu gisa hartzea.

Burutzeko epea: 2014 – 2015.

- **Eusko Legebiltzarrean bertaratzea** Liburu Zuria aurkezteko, lidergo politikotik eta eraikuntza partekatuko prozesuarekiko errespetutik jarraitzeko bokazioa duen demokraziako eta herritarren parte-hartzeko esparru bat sustatzeko.

Burutzeko epea: 2015eko lehen hiru hilabeteetan.

- **Esperientzia berritzaileen garapena sustatzea** gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte-hartzea bultzatzeko formula desberdinak esperimentatzeko aukera ematen duten 2-3 proiektu piloturi babesa emanez.

Burutzeko epea: 2015 – 2016.

- **Liburu Zuriaren barneko zabalkundea egitea** Jaurlaritzako egituretan, administrazioan arlo publikoa kudeatzeko modu desberdin bat errotzen saiatuz. Langile publikoentzako eta zuzendari publikoentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak garatzea, parte-hartzearen prozeduren eta tresnen berri emateko eta horien erabilera sustatzeko.

Parte-hartzea sustatzeko sailen arteko lan-konpromiso hori dagoeneko garatzen hasi da Osasun Sailak egin duen "Parte-hartzea osasunean" esku-hartzerako estrategia baten diseinuaren bitartez. Burutzeko epea: 2015 eta hurrengoak.

Era berean, azaroan zehar burututako Euskadiko Demokraziari eta herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren **kontraste prozesuan**, hedatze eta jarraipen fasean aintzat hartu beharreko 10 gai zehaztu dira:

1. Identifikatzea **egitura eta dinamika kolektiboak**, baita bitarteko kanalak ere (adibidez, sindikatuak, federazioak, elkarteak), eta horiek parte hartzearen lankidetzaren alderditik ekar dezaketen balioa ere bai, administrazioen eta herritarren arteko "zubigintza" sendotzeko egitura gisa.
2. Euskadin egin diren **prozesu parte-hartzaileen garrantzia azpimarratzea eta aintzatestea**; ikasitakoa baliatzea.
3. Euskadin dauden **prozesu parte-hartzaileen eta kanal formalen** inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden **kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak** berrikustek, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez.
4. **Teknologia berriek** –parte hartzeko elementu gisa– ohiko formatu presentzialetatik harago duten garrantzian sakontzea.
5. **Prozesu parte-hartzaileen diseinua**: nola egin prozesu parte-hartzaile erakargarriagoak eta irismen handiagokoak, inklusio-printzipioak errespetatuz; nola ekin transbertsalitateari dinamika parte-hartzaileetan (generoa, osasuna, adina, open data, hezkuntza, eta abar), haren mugak...
6. Nola sustatu **kultura parte-hartzaile bat** (nola irakatsi parte hartzen, nola ikasi, nola sortu kultura), eta zein den Administrazioaren papera kulturaren sustapenean: partaidetza-hezkuntza, parte hartzearen aintzatespen soziala, solaskide legitimoen aintzatespena, partekaturiko gune eta baliabideak, eta abar.
7. Parte hartzeko konpetentziak (politikoak eta herritarrenak) eta nola garatu konpetentzia horiek egikaritzeko trebetasunak eta portaerak.
8. Erreminta-kutxa bat diseinatzea, parte hartzeko formula ezberdinak zerrendatuko dituen –haien abantailak eta desabantailak adierazita–, **bai eta parte hartzeko lanabes eta metodologiak ere jasoko dituen**.
9. **Prozesu parte-hartzaileen ebaluazioa**: adierazleak, parte ez hartzeko arrazoiak, ez errepikatzenko arrazoiak, emaitzak eta inpaktuak, jarraipen-batzordeak, eta abar.
10. Herritarren partaidetzaren alorrean **administrazioarteko lankidetzarako tresnak** garatzea (kontseilua, batzordea, foroa, eta abar).

Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria oraindik ere eraikitzen ari den prozesu baten barruan dagoen dokumentu bizi gisa jaio da. Ez da, beraz, helmuga bat, abiapuntu bat baizik, emaitza gisa denboran zehar iraunkorra izango den eta erakundeen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzan oinarrituko den Euskal Autonomia Erkidegorako balio publikoaren sorkuntza partekatu bat izango duten erreforma garrantzitsuagotan aurrera egiteko.



elkarrekin eraikiz
cocreando valor público